

Alfonso Sastre atala eskaini dio Cervantes liburutegi birtualak

Idazlearen antzerki obra eta idazki teoriko nagusiak bildu dituzte, baita haren lanei buruzko azterlanak ere.

Agentziak. Madril.

Alfonso Sastre (Madril, 1926) idazleari eskainitako atala zabaldu du Miguel de Cervantes liburutegi birtualak, www.cervantesvirtual.com/bib_autor/alfonsosastre helbidean. Sastrearen antzerki lan eta idazki teoriko nagusiak jasotzen ditu atal horrek, Notas para una sonata en mi (menor) testu autobiografikoaz eta Sastrearen obrei buruzko hainbat azterlanekin batera.

Horretaz gain, Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Teatraleko dokumentazio zentroak utzitako argazkiak eta bideo lanak ere badira Sastreari eskainitako atal horretan.

Antzerki egile eta eragile

Antzerkigintzan egin duen lanaren balioa aitortu dio gisa horretan Miguel de Cervantes liburutegi birtualak Sastreari. XX. mendearen bigarren erdialdeko egile nagusietako bat izateaz gain -besteak beste, La mordaza, Cargamento de sueños, Escuadra hacia la muerte, El viaje infinito de Sancho Panza eta La taberna fantástica-ren egilea- eragile gisa ere lan eskerga egin du. Antzerki taldeak sortu ditu, manifestuak idatzi, egile klasiko nahiz garaikideen lanak egokitu, kritikari lana egin eta lan teorikoak idatzi eta argitaratu.

Miguel de Cervantes liburutegi birtualak 30.000 erregistro bibliografiko eskaintzen ditu doan.